

Eibarko euskararen intonazioaz

IÑAKI GAMINDE*

SARRERA

Euskararen intonazioaren esparruan azken urteotan zerbait aurreratu bada ere, orain arte egin diren ikerketak urriak dira eta beste alor batzuen aldean honetan dauzkagun gabeziak oso handiak dira. Ikerketa lerro honetan aurreratu ahal izateko daukagun lehen oztopo nagusia datu falta da; oso gutxi dira orain arte intonazioari buruz egin diren deskribaketak (Hualde eta lag. 1994, Uriarte 1995, Gaminde 1996 eta 1997, Gandarias 1996, Gaminde eta lag. 1997 eta 1998, Elordieta 1997 eta 1999, Hernáez eta lag. 1997, Jun eta Elordieta 1997, Gaminde eta Hazas 1998 eta Elordieta eta lag. 1999) eta egin diren kasu batzuetan ere intonazioaren alde batzuk baino ez dira deskribatu. Datu urritasunari ikerketei ekitean topatzen ditugun arazo metodologikoak eta gabezia teorikoak gehitu behar zaizkio.

Artikulu honetan Eibarko datu batzuetan oinarrituta, barietate honen deskribaketarekin hurbilpen bat egin gura dugu, bide batez aipatu ditugun arazo metodologiko horietariko batzuen gainean eztabada plazaratzeko ere aprobetxatuko dugu. Azkenik, euskararen intonazioari buruzko mapa noizbait egingo dugulakoan, hemen aurkezten ditugun ereduak gainerako barietate batzuetakoekin erkatu egingo ditugu. Beraz hiru motatako helburuak dauzkagu, aukeratu dugun barietatean jaso ditugun datuak ematea eta azaltzea; eduki ditugun arazo metodologikoak konpontzeko zer nolako irtenbideak eman ditugun aurkeztea eta Eibarko ereduaz ezagutzen ditugun beste batzuen aldean zelan geratzen den ikustea.

* U.P.V. Euskal Herriko Unibersitatea.

Lanaren lehen atalean ematen ditugun datuak jasotzeko eta aztertzeko erabili dugun metodologia azaltzen da. Bigarren atalean jaso ditugun datuak eman ez ezik aztertu ere egiten dira bai fonetikoki bai fonologikoki. Hirugarren atalean, Eibarko ereduak ezagutzen ditugun beste barietate batzuetako ereduekin erkatu egingo ditugu. Azkenik, lan honen ondorioak labur-bildu eta hurrengo lan batzuetarako proposamenak egin ere egiten dira.

METODOLOGIA

Hurrengo atalean ematen ditugun datuak jaso ahal izateko Eibarko informatzaile biren¹ laguntza izan dugu; bata gizonezkoa eta bestea andrezkoa. Informatzaileek alde zuzenetik idatzita zeuden esaldi batzuk irakurri eta esan egin behar izan zituzten ahal denik eta naturalen euren barietateen arabera. Kasu guztietan fokalizatutako elementua aditz aurrekoa izan behar zela esan zitzaion, era honetara esaldien arteko balizko desberdintasunak ekidin nahi ziren. Grabazioak Minidisk sistema digitalean egin ziren. Jasotako materialak degitalizatu ostean Bilboko Ingeniaritza Eskolan garatutako AHOT² deritzon programaren bidez neurtu ziren.

Gauza jakina da informatzaile bakoitzak bere oinarrizko maiztasuna daukana; are, gizonezko eta andrezkoen artean haren desberdintasuna handiagoa dena, eman dezagun gizonezko biren artean edo andrezko biren artean dagoena baino; halandaze, alor honetan sortu zaigun lehen arazo metodologikoa esaldien normalizazioarena izan da. Arazo honen gainean Gandarias-en (1996) lana ikus daiteke, bertan metodo batzuk aurkezten dira, nahiz hemen aukeratu duguna ez den berak aukeratutakoa.

EIBARKO DATUAK

Atal honetan Eibarko oinarrizko esaldi deklaratuak eta BAI/EZ galderen datuak emango ditugu. Esaldi deklaratuak kasuan, eurok oinarrizkoenak izanik, azterketa fonologikorako proposamen bat egingo dugu eta proposamen horretarako erabili ditugun tonuen azterketa fonetikoak.

Esaldi deklaratuak


Esaldi deklaratuak emateko, esaldian dauden sintagma konstante hartuko ditugu; hau da, esaldiak sintagma batekoak edo bikoak diren. Bestalde, sintagmen silaba kopuruaren arabera ere banatuko ditugu. Lan honetarako beren-bereri aditza esaldiaren azken lekugunean daukaten esaldiak aukeratu ditugu, era honetara aldagai bat kontrolatu gura izan dugu; honek ez du adierazi gura, jakina, azterketa aditzaren gainerako lekuguneetara hedatu behar ez denik, gure kasuan eta oraingoz arazo hau azterkizun uztea erabaki dugula baino. Guzti horren arabera dauzkagun aukerak honako hauek dira:

- Sintagma bat silaba bikoak (s2a)
- Sintagma bat hiru silabakoak (s3a)
- Sintagma bi silaba bikoak (ss2a)
- Sintagma bi hiru silabakoak (ss3a)


¹ Eskerrik beroenak Ander Simal eta Maider Azkargorta izan ditudan informatzaileei.

² AHOT programa Borja Etxebarria eta Inma Hernáez irakasleen gidaritzapean garatzen dabil.


s2a	1	2	3	4	5
onek saldu dau	125	114	104	121	104
ura saldu dau	138	129	104	123	100
lurra saldu dau	139	122	111	132	98
ura saldu dau	135	124	107	119	102
onek saldu dau	129	120	106	120	97
lurra saldu dau	123	104	104	116	99
ura saldu dau	126	113	106	118	99
Batez-beste	131	118	106	121	100




s3a	1	2	3	4	5	6
gisonak saldu dau	114	129	114	107	120	99
lagunak saldu dau	111	126	106	107	122	100
lagunak saldu dau	111	132	119	103	122	100
sagarra saldu dau	116	134	127	107	123	101
bedarra saldu dau	113	120	103	104	114	100
sagarra saldu dau	108	124	110	108	121	104
gisonak saldu dau	120	133	125	113	115	99
Batez-beste	113	128	115	107	120	100



ss2a	1	2	3	4	5	6	7
onek ura saldu dau	126	147	153	147	113	126	100
amak ura saldu dau	108	131	145	137	113	121	100
amak ura saldu dau	110	124	127	126	110	125	104
onek lurra saldu dau	115	126	124	112	104	116	102
amak lurra saldu dau	111	120	126	107	107	114	100
onek lurra saldu dau	123	135	145	122	111	1236	99
amak lurra saldu dau	110	135	138	123	111	123	97
Batez-beste	115	131	137	125	110	121	100




ss3a	1	2	3	4	5	6	7	8	9
lagunak bedarra saldu dau	112	138	157	119	123	115	107	117	98
gisonak sagarra saldu dau	112	121	126	120	129	115	103	116	103
lagunak bearra saldu dau	113	120	126	116	126	116	107	122	103
lagunak sagarra saldu dau	106	115	119	119	129	121	104	116	100
gisonak bedarra saldu dau	111	119	126	117	125	116	107	111	100
gisonak sagarra saldu dau	110	126	130	130	138	119	105	126	100
gisonak bedarra saldu dau	116	126	135	131	138	123	107	120	94
lagunak bedarra saldu dau	110	132	145	124	135	120	104	121	95
Batez-beste	111	125	133	122	130	118	106	119	99




Honaino aurkeztu ditugu oinarriztat hartu dugun informantearen datuak; beste informante baten emaitzekin erkatu ahal izateko, datuak normalizatu behar ditugu (bai batarenak, bai bestearenak). Normalizazioa lortu ahal izateko esaldiaren lehen silabaren hertzen arabera egiten dugu kasu guztietan; berau nahikoa erraza da, silaba guztien a 1 eta gainerakoak honen gaitetik edo azpitik agertuko zaizkigu. Era honetara bien emaitzak erkagarri egiten ditugu. Jarraian gorago emandako datuak (1. L) beste informatzaile baten (2. L) datuekin erkatuta aurkezten ditugu


s2a	1	2	3	4	5
1. L	1	0,90	0,81	0,93	0,76
2. L	1	0,91	0,81	0,85	0,80




s3a	1	2	3	4	5	6
1. L	1	1,14	1,02	0,95	1,06	0,89
2. L	1	1,08	0,99	0,91	0,93	0,85



ss2a	1	2	3	4	5	6	7
1. L	1	1,14	1,19	1,09	0,96	1,05	0,87
2. L	1	1,10	1,12	1,05	0,94	0,98	0,82



ss3a	1	2	3	4	5	6	7	8	9
lagunak bedarra saldu dau	112	138	157	119	123	115	107	117	98
1. L	1	1,12	1,20	1,10	1,17	1,06	0,95	1,07	0,89
2. L	1	1,09	1,10	1,07	1,10	1,01	0,91	0,90	0,86



Grafikoetan ikusten den moduan, informatzaile biek oinarritzko maiztasun kurben konfigurazio bera daukate kasu guztietan. Aditzaren aurrean sintagma bakar bat dagoenean, esaldiaren gailurra galdegaigunean dagoen sintagmaren silaba azentudunean kokatzen da. Esaldian sintagma bi daudenean berriz, esaldi osoaren lehen sintagmaren gailurra ez dator bat silaba azentudunarekin.

Eman ditugun esaldi deklaratuaren azterketa fonologikoa egiteko, lehenengo eta behin azentudun silabetan H* azentu tonudunak txertatzen direla pentsa dezakegu; honela:

ónek saldú dau
 | |
 H* H*

 lagúnak saldú dau
 | |
 H* H*

Horago aipatu bezala, esaldiaren gailurra galdegaiguneko H* tonuarekin bat egiten du. Esaldiaren azterketa amaitzeko %L eta L% ertz-tonuak txertatu beharko lirateke. Libre geratzen diren silabetan tonu baxuak txertatuko lirateke:

ónek saldú dau
 | | |
 H* H* L%

lagúnak saldú dau
 | | | |
 %L H* H* L%

ónek saldú dau
 | | | | |
 H*L L H* L%

lagúnak saldú dau
 | | | | | |
 %LH* L L H* L%

Sintagma biko esaldietan galdegaigunetik amaierarateko azterketa bera proposa dezakegu; hala ere, esaldiaren lehen sintagman H* tonua ez eze, sintagmaren muga H% ertz-tonu bat sartzen da. Azken tonu honen bidez esaldian eremu argi bi bereizten dira; bata hasierako sintagma, eta bestea, galdegaiguneak eta aditzak sortzen dutena:

(1) H* tonuen txertaketa:

[lagúnak] [bedárria saldú dau]
 | | |
 H* H* H*

(2) Ertz tonuen txertaketa:

[lagúnak] [bedárria saldú dau]
 | | | | | | | |
 %LH*H% %LH* H* L%

(3) Gainerako tonu baxuak:

[lagúnak] [bedárria saldú dau]
 | | | | | | | | |
 %LH* H% %LH*L L H* L%


Azterketa fonologikoa egiteko erabili ditugun tonuen azterketa fonetikoaren egin dugu esaldian sintagma batetik bestera dagoen aldea aztertu ahal izateko (lehen informantearen datuak erabili ditugu). Esaldi guztiek era bitako konfigurazioak daukate; bata hasieratik aditzera eta, bestea, aditzetik amaierara artekoa. Tonu altuak eta baxuak altuagoak edo baxuagoak izango dira esaldiaren lehen edo bigarren egongunean badaude; hori dela eta tonuen emaitzak agertzen diren silabaren arabera ematen ditugu:

H* galdegaigunean				H* aditzean			
1. sil	2. sil	3. sil	5. sil	4. sil	5. sil	6. sil	8. sil
131	128	137	130	121	120	121	117
H* 1. sintagman				H%			
Ertz-Tonuak							
1. sil	2. sil	2. sil	3. sil	%L	L%	%L erdian	
115	125	131	134	112	100	122	
L galdegaigunean				L aditzean			
2. sil	3. sil	4. sil	6. sil	3. sil	4. sil	5. sil	7. sil
118	115	125	119	106	107	110	105

Gorago fonologikoki aztertu dugun esaldietariko bati tonu bakoitzaren balio ertaina emanaz gero honako hau lortuko genuke:

la	gú	nak	be	dá	rra	sal	dú	dau
%L	H*	H%	%L	H*	L	L	H*	L%
112	125	134	122	130	119	105	117	100


Ondoko grafikan esaldi errearen kurba eta batez-bestearen bidez lortu duguna batera ikus daitezke:




Galderak

Galderen azterketaren datuak aurkezteko esaldi deklaratuazileetan egin dugun gauza bera egingo dugu, hots, sintagma kopurua eta sintagmen silaba kopuruak kontuan eduki.


s2a	1	2	3	4	5
onek saldu dau?	121	138	138	160	103
amak saldu dau?	113	128	141	161	105
amak saldu dau?	112	122	135	157	115
onek saldu dau?	123	134	139	156	108
lurra saldu dau?	125	130	135	151	104
ura saldu dau?	119	131	133	153	104
lurra saldu dau?	129	145	146	164	102
ura saldu dau?	126	138	141	159	108
Batez-beste	121	133	139	158	106




s3a	1	2	3	4	5	6
sagarra saldu dau?	110	123	139	135	156	106
gisonak saldu dau?	104	121	136	136	151	108
bedarra saldu dau?	108	118	125	136	145	105
sagarra saldu dau?	110	123	128	133	138	102
lagunak saldu dau?	110	121	130	132	154	107
gisonak saldu dau?	113	126	138	131	156	102
lagunak saldu dau?	108	129	141	133	162	106
bedarra saldu dau?	110	120	138	148	167	105
Batez-bestea	109	123	134	136	154	105



ss2a	1	2	3	4	5	6	7
amak ura saldu dau?	107	127	141	139	137	156	105
onek ura saldu dau?	121	138	141	142	139	162	107
amak lurra saldu dau?	110	122	129	138	130	151	108
onek lurra saldu dau?	116	126	130	133	135	151	104
amak ura saldu dau?	108	121	131	135	129	141	107
onek ura saldu dau?	117	127	127	133	127	141	107
onek lurra saldu dau?	121	138	141	145	136	156	104
amak lurra saldu dau?	110	128	142	144	135	151	104
Batez-bestea	114	128	135	139	134	151	106




ss3a	1	2	3	4	5	6	7	8	9
gisonak bedarra saldu dau?	105	120	132	128	128	132	132	149	107
lagunak sagarra saldu dau?	107	116	124	121	127	124	121	141	106
gisonak sagarra saldu dau?	113	119	126	126	129	120	127	141	106
lagunak bearra saldu dau?	110	121	124	123	123	124	124	137	104
lagunak sagarra saldu dau?	110	126	132	134	135	137	133	152	103
gisonak sagarra saldu dau?	111	125	135	131	136	136	129	157	109
gisonak bedarra saldu dau?	110	125	129	131	135	134	134	156	104
lagunak bedarra saldu dau?	110	126	135	140	142	145	140	157	103
Batez-beste	110	122	130	129	132	132	130	149	105




Esaldi deklaratzailerekin egin dugun bezala, esaldien neurriak normalizatu, informante bien emaitzak erkatuta aurkezten ditugu jarraian:


s2a	91	2	3	4	5
1. L	1,00	1,10	1,14	1,30	0,88
2. L	1,00	1,10	1,11	1,21	0,85




s3a	1	2	3	4	5	6
1. L	1,00	1,13	1,23	1,24	1,41	0,96
2. L	1,00	1,12	1,20	1,23	1,36	0,94



ss2a	1	2	3	4	5	6	7
1. L	1,00	1,13	1,19	1,22	1,17	1,33	0,93
2. L	1,00	1,13	1,19	1,17	1,15	1,28	0,87




ss3a	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1. L	1,00	1,11	1,18	1,18	1,20	1,20	1,18	1,35	0,96
2. L	1,00	1,13	1,20	1,15	1,18	1,18	1,20	1,30	0,92




Esaldi deklaratuak (d) eta galderazkoak (g) erkatuz gero, desberdintasunik handiena gailurraren kokaerari dagokiona konturatzen gara. Orain arte egin dugun moduan, jarraian batezbesteen erkaketak aurkezten dira


s2a	1	2	3	4	5
d	1	0,90	0,81	0,93	0,76
g	1,00	1,10	1,14	1,30	0,88




s3a	1	2	3	4	5	6
d	1	1,14	1,02	0,95	1,06	0,89
g	1,00	1,13	1,23	1,24	1,41	0,96



ss2a	1	2	3	4	5	6	7
d	1	1,14	1,19	1,09	0,96	1,05	0,87
g	1,00	1,13	1,19	1,17	1,15	1,28	0,87



ss3a	1	2	3	4	5	6	7	8	9
d	1	1,12	1,20	1,10	1,17	1,06	0,95	1,07	0,89
g	1,00	1,11	1,18	1,18	1,20	1,20	1,18	1,35	0,96



EIBARKO EREDUA GAINERAKOEN ARTEAN

Intonazioaren alorrean dauzkagun deskribapenak aztertuz gero (ikus aipamenak), mendebaldeko ereduak dira ondoen ezagutzen ditugunak; eredu guzti hauetan, xehetasunak xehetasun, ondoko tonu banaketa aurkitzen dugu:

%L (H-) H* L%

Erdiko ereduaren intonazioaz gauza handirik ezagutzen ez badugu ere, Zumaiakoa hartzen badugu (Gaminde eta Hazas 1998) honako hau dugu:

%L [(H*) H%] [(H*) H%] H* L%

Bestalde, Elordietak (1999) Tolosarako proposatu duen eredu oso ondo egokitzen zaio hemen aurkezten dugunari. Beraz, badirudi Eibarko eredu hurbilago dagoela Zumaiakotik eta Tolosakotik mendebaldekoetatik baino, izan ere, mendebaldeko barietateetan H% tonuak ez ditugu topatzen sintagma mugetan. H% tonuen erabilera Zumaian eta Eibarren bat bera ez den arren, era honetako tonuak egotea ezaugarri amankomuna da behintzat.

ONDORIOAK

Azkenik, laburki bada ere, lantxo honen ondorioak, hasieran irudikatu ditugun helburuen arabera, hiru multzotan koka ditzakegu. Batetik Eibarko ereduari dagokionez, esaldi deklaratzailerako osagai bi proposatu behar dira. Osagai horietariko bat bere barruan galdegaigunea eta aditza hartzen dituen da; honelako kasuetan honako tonu melodia topatzen dugu:

%L H* L (L) H* L%

Kasu honetan esaldiaren gailurrak galdegaigunean dagoen H* tonuarekin bat egiten du. Esaldian sintagma bat baino gehiago dagoenean, osagai bi dau dela proposatu dugu eta tonu melodia ondoko era honetara labur dezakegu:

[(%L) H* H%] [%L H* L (L) H* L%]

Beraz aukeran dagoena lehen osagaiaren egitura da, baina goiko tonu melodiaren bidez mota biak deskribatzen dira. Galderazko esaldietan konfigurazio berdinak dauzkagu, desberdintasuna gailurraren kokagunean dago; galderazko esaldietan esaldi osoaren gailurra azkenurreko silaban kokatzen da, kokaera horrek tonuen izaera fonetikoa aldaraz dezake.

Informatzaile bat baino gehiagoren emaitzak erkatu behar izaten direnako, oinarrizko maiztasunen kurbak normalizatzeko egin dugun proposamenaren muina lehen silaba oinarriztat hartzea eta zatikatzean eta ez kentzean datza.

Azkenik, ezagutzen ditugun beste barietate batzuetako deskribapenak gogotan erabilia, Eibarko eredia erdiko erduekin lotu behar dela uste dugu eta ez mendebaldeko erduekin.

Hurrengo lanei begira, gehiena egin barik daukagunez gero, barietate honen beronen gainean argi utzi nahiko genuke gure azterketa hau behin-behinekotzat baino ezin har daitekeela eta ikerketaren hasiera baino ez dela. Esaldi deklaratuarekin, aditza azkenean ez daukatenak aztertu beharko lirarteke, eta jakina, azterkizun geratzen dira hitz markatuak biltzen dituzten esaldiak.

AIPAMENAK

- ELORDIETA, G. (1997): "Accent, tone and intonation in Lekeitio Basque". In *Issues in the Phonology and Morphology of the Major Iberian Languages*, ed. by Fernando Martínez-Gil and Alfonso Morales-Front (eds), 3-78 orr. Washington, D. C.: Georgetown University Press.
- ELORDIETA, G. (1999): "Primer estudio comparativo de la entonación de tres variedades dialectales vascas" agertzeko I. Congreso de Fonética Experimental-eko agirietan, Bartzelonako Unibertsitateko argitalpen zerbitzua
- ELORDIETA, G.; Gaminde, I.; Hernáez, I., Salaberria, J. eta Martín de Vidales, I. (1999): "Another Step in the Modeling of Basque Intonation: Bermeo" Txekian agertzeko.
- GAMINDE, Iñaki (1996): "Lesakako azentu eta intonazioaz". FLV-71
- GAMINDE, Iñaki (1997): *Gatikako Euskaraz*, Gatika, Gogoz
- GAMINDE, Iñaki, HERNÁEZ, Inmaculada, ETXEBARRIA, Borja eta ETXEBERRIA, Pilartxo (1997): "An Analysis of the Intonation for a Pitch Accent Variety of the Basque Language" in Botinis, A. ; Kouroupetroglou, G. eta Carayiannis, G. (1997): *Intonation: Theory, Models and Applications*. Proceedings of an ESCA Workshop, Athens, Grezia. 137-140
- GAMINDE, Iñaki eta Hazas, Almike (1998): "Zumaiako azentuaz eta intonazioaz". Uztaro-24, 59-76 orr.
- GAMINDE, Iñaki, HERNÁEZ, Inmaculada, ÁLVAREZ, Jose Luis eta ETXEBERRIA, Pilartxo (1998): "Azentu, intonazio eta silabifikazioen funtzio bereizleez" *Psicodidáctica*-6, 69-78 orr.
- GANDARIAS, R. (1996): *Isparteko Intonazioaren Deskribapena: Azterketa Fonetikoa*, Doktorego Tesia, EHU.

- HERNÁEZ, Inmaculada, GAMINDE, Iñaki, ETXEBARRIA, Borja eta ETXEBERRIA, Pilartxo (1997): "Intonation Modelling for the Southern Dialects of the Basque Language" in ESCA (1997): Eurospeech97. Rhodes, Grezia. 807-810 orr.
- HUALDE, J.I. ELORDIETA, G. eta ELORDIETA, A. (1994): *The Basque Dialect of Lekeitio*. Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco y Diputación Foral de Gipuzkoa, Bilbo eta Donostia
- JUN, S. A. eta ELORDIETA, G. (1997): "Intonational structure of Lekeitio Basque". in Botinis, A.; Kouroupetoglou, G. eta Carayiannis, G. (1997): *Intonation: Theory, Models and Applications*. Proceedings of an ESCA Workshop, Athens, Grezia. 193-196
- URIARTE, J. A. (1995): *Fruizko Hizkera: Azterketa Linguistikoa*. Doktorego tesia, Deustuko Unibertsitatean.

LABURPENA

Artikulu honetan Eibarko euskararen intonazioaren oinarritzko eredu gainerako datuak eta euron azterketa aurkezten dugu. Lan honetarako azentu ez markatutako hitzak eta aditza amaierako egongunean dauzkaten esaldiak baino ez ditugu aukeratu. Jaso ditugun datuen aurkezpenarekin batera, euron azterketa fonetiko eta fonologikoa ere egin ditugu.

Ataletariko batean datuen normalizazioak dakarkigun arazoak jardun ez ezik, konponbide metodologiko bat iradoki ere egin dugu. Azkenik, barietate honetarako lortu ditugun ondorioak ezagutzen ditugun besten batzuetakoe-kin erkatu ditugu, erkaketa honen helburua etorkizunean egingo den euskararen intonazio-ereduen mapa egiten hasia da.

RESUMEN

En este artículo presentamos los datos y el análisis de los modelos básicos de la entonación del euskera de Eibar. Para este trabajo hemos elegido las frases que contienen solamente palabras con acento no marcado y el verbo en posición final. Junto con la presentación de los datos obtenidos ofrecemos un análisis fonético y fonológico de los mismos.

En una de las secciones nos ocupamos del problema que supone la normalización de los datos y sugerimos una posible alternativa metodológica. Por último, comparamos los resultados de esta variedad con los de otras que conocemos, el objetivo de esta comparación es dar comienzo a la elaboración del futuro mapa de los modelos de entonación del euskara.

RÉSUMÉ

Nous présentons dans cet article les données et l'analyse des modèles basiques de l'intonation de l'euskera d'Eibar. Nous avons choisi pour ce travail les phrases contenant seulement des mots dont l'accent n'est pas marqué et la position du verbe se trouve en fin de phrase. Nous offrons une analyse phonétique et phonologique des données obtenues qui sont ici présentées.

Nous nous occupons, dans l'une des sections, du problème que suppose la normalisation des données, et nous suggérons une alternative méthodologique possible. Enfin, nous comparons les résultats de cette variété avec ceux d'autres variétés que nous connaissons déjà, l'objectif de cette comparaison étant de donner le point de départ à la future carte des modèles d'intonation de l'euskera.

ABSTRACT

In this article we present data and analysis of the basic intonation models of the Basque spoken in Eibar. For the purposes of this study, we have chosen

sentences containing only words with unmarked stress and verb at the end position. A phonetic and phonological study of the content is offered together with the data obtained.

In one of the sections we deal with the problem of data normalisation and come to suggest an alternative methodology. We finally compare the results concerning this variety with those of others we know of, so as to set a starting point for the future creation of a Basque-language intonation model map.